

ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

Barne araudi honek osatu eta garatu egiten du Donostiako ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen estatutuetan ezarritako edukia, haren jardueraren lau eremu funtsezkotan: elkarteak antolatutako jardueretako plazen esleipena, zehapen araubidea, hauteskunde prozedura eta kargugabetzeko prozedura. Azkenik, bera aldatzeko prozedura ere ezartzen du.

Osagarria eta garapena denez, bere edukiak ezingo du inola ere egin estatutuetan ezarritako xedapenen kontra. Araudi honetako edozein zehaztapenek estatutuen kontra egiten badu, jarri gabekotzat jo beharko da.

ELKARTEKO JARDUERETAN PLAZAK ESLEITZEKO ARAUBIDEA. IKASTAROEN ETA ZOZKETEN METODOA

1. artikulua

Elkarteko jardueretan, plazak soilik esleitu dira zentroak emandako eskabide-orria garaiz aurkezten dutenen artean.

Bakoitzak bi ikastaro bakarrik aukeratu ahalko ditu.

Onartutakoen zerrendak argitaratu ondoren plaza libreak gelditzen badira, horiek edonork eskatu ahalko ditu, beste bi ikastarotan izena emanda egonda ere, eta eskabideen hurrenkeraren arabera esleitu dira, ikastaroa bete arte.

2. artikulua

Eskatzen duten bazkide guztiek gutxienez plaza bat izan dezaten, batek lehen aukeran plaza lortzen badu, bigarren aukeran itxaron-zerrendan jarriko da, bigarren ikastaro horretan plaza librerik ez badago.

3. artikulua

Horiekin guztiekin jarduera baterako ezarritako plazak betetzeko ematen ez badu, eta horregatik arriskua badago jarduera ez egiteko, orduan bakarrik ireki ahalko da bigarren deialdi bat, elkartetik kanpoko adinekoentzat, bete gabeko plazetarako soilik.

4. artikulua

Jarduera bat abian jartzeko, eskabideak aurkezteko epea hasi baino bi aste lehenago jakinarazi beharko zaie bazkideei, gutxienez.

5. artikulua

Halaber, elkartearen sarreran begien bistan afixa bat jarri iragarri beharko da, eta afixako letrek elkartekideek erraz irakurtzeko moduko tamaina izan beharko dute. Afixa horrek eskabideak aurkezteko epea hasi baino bi aste lehenago jarrita egon beharko du, gutxienez.

6. artikulua

Iragarki horretan jardueraren deskribapen txiki bat, eskabideak aurkezteko egunak eta orduak eta elkartearen egoitzan egingo den zozketaren eguna eta ordua jaso beharko dira.

Eskolen ordutegia, kostua eta egunak programatutakoak izango dira, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

7. artikulua

Eskabideak aurkezteko zenbait egun ezarriko dira, elkartekide interesdun guztiek aurkeztea errazteko.

8. artikulua

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, zozketa egingo da, iragarritako egunean eta orduan.


9. artikulua: Zozketa

Zozketa publikoa izango da. Nahi duten elkartekide guztiak bertaratu ahalko dira.

Zozketaren inguruan eztabaidarik badago, Zuzendaritza Batzordeak ebaziko du.

Plazak esleitzea Zuzendaritza Batzordearen ahalmena izango da, betekizunak betetzen direla egiaztatu eta, eskaintako plazak baino eskabide gehiago egonez gero, zozketa publikoa egin ondoren.

Ebazpen horiek Batzarrean aurkaratu ahalko dira.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

10. artikulua: Hizkuntza-ikastaroen araubidea

Ingeleseko eta frantseseko ikastaroetan plaza lortzeko, lehentasuna izango dute eskabide berriek eta maila berberera hiru ikasturtez baino gutxiagoz joan direnek.

Euskara-ikastaroak euskaltegian eskatu behar dira, eta eskaera hori elkartean gehienez eska daitezkeen bi ikastaroetatik kanpo egongo da.

11. artikulua: Matrikula ordaintzea

Ikastaroa esleitutakoan, adjudikaziodunak matrikula ordaindu beharko du, Zuzendaritza Batzordeak ezarritako datan eta moduan.

Ordainagiria idazkaritzan aurkeztu beharko da, ezarritako epean, eta hala egin ezean hutsik geldituko da plaza, besteren baten mesedetan.

12. artikulua

Matrikula formalizatu ondoren, **haren zenbatekoa ez da itzuliko**, kasu hauetan salbu:

- a. Erdialdek ikastaroa bertan behera uztea ikastaro bakoitzean gutxieneko partaidea kopurua lortu ez delako.
- b. Arrazoi justifikaturen batengatik ikastaroa uztea ikastaroa hasi eta gehienez bi asteko tartean, baldin eta beste pertsona batek betetzen baldin badu plaza.
- c. Ikastaroa hasi eta bi asteren ondoren, matrikula ez da inola ere itzuliko.
- d. Ikastaroa ezinbesteko kasuren batengatik bertan behera gelditzea; halakorik gertatuz gero, eskolak hasi gabeko hiruhileko oso bakoitzeko itzuliko da dirua. Eskolak hasi badira, ez da hiruhileko horretako zenbatekorik itzuliko.

13. artikulua: Ikastaroak aldatzea

Ikastaroen ordutegia, irakasleak, datak eta abar aldatu ahalko dira, sortutako beharren arabera.

14. artikulua: Eskoletara bertaratzea

Ikastaroa bukatzen denerako eskolen % 25ean justifikaziorik gabe huts egin badu, hurrengo ikasturterako matrikulatzeko lehentasuna galduko da.

Eskoletara bertaratuz gero, ikasleek nahitaez bete beharko dituzte elkarteak ezarritako arau higienikoak eta osasunekoak.

ELKARTEKO JARDUERETAN PLAZAK ESLEITZEKO ARAUBIDEA. BIDAIK ETA BESTELAKO ESKAERAK

15. artikulua

Elkarteko jardueretan plazak bazkide diren eta honako baldintza hauek betetzen dituztenei bakarrik esleituko zaizkie:


- Erdialdeko kuoten ordainketak egunean izatea.
- Erdialden diziiplina espedienterik irekita ez izatea.
- Eguneroko jarduerak bere kasa egiteko gai izatea, eta proposatutako jarduerarekin bateragarri izatea.

16. artikulua

Horiekin guztiekin jarduera baterako ezarritako plazak betetzeko ematen ez badu, eta horregatik arriskua badago jarduera ez egiteko, orduan bakarrik ireki ahalko da bigarren deialdi bat, elkartetik kanpoko adinekoentzat, bete gabeko plazetarako soilik.

17. artikulua

Jarduera bat abian jartzeko, eskabideak aurkezteko epea hasi baino bi aste **lehenago jakinarazi beharko** zaie bazkideei, gutxienez.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

18. artikulua

Halaber, **elkartearen sarreran begien bistan afixa bat jarritz iragarri beharko da, eta afixako letrek elkartekideek erraz irakurtzeko moduko tamaina izan beharko** dute. Afixa horrek eskabideak aurkezteko epea hasi baino bi aste lehenago jarrita egon beharko du, gutxienez.

19. artikulua

Iragarki horretan jardueraren deskribapen txiki bat, eskabideak aurkezteko egunak eta orduak jaso beharko dira, eta plazak elkartearen egoitzan egin beharreko eskaeren hurrenkerari zorrotz jarraituz esleitu direla.

20. artikulua

Eskabideak banan-banan aurkeztuko dira Erdialderen egoitzan. Bazkide bakoitzak gehienez ere lau bidaia eskuratu ahalko ditu.

Ordainketa bankuko txartelaren bitartez egingo da, bidaia eskuratzean.

21. artikulua

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, jardueran parte hartzeko aukeratutakoen zerrenda argitaratuko da.

22. artikulua

Publikoak izango dira aurkeztutako eskabideen zerrenda, haien eguna eta ordua.

Horren inguruko eztabaidarik badago, Zuzendaritza Batzordeak ebatziko du. Ebazpen hori Batzarrean aurkaratu ahalko dira.

23. artikulua

Plaza eskuragarri guztiak betetzeko nahiko eskaera ez badago, eskatzaileei plazak automatikoki esleitu zaizkie.

Beste astebeteko epea irekiko da elkartetik kanpoko adinekoek eskabideak aurkezteko, eta, horretarako, beste afixa bat jarriko da, eskabideak aurkezteko datekin eta orduekin.

Publikoak izango dira aurkeztutako eskabide berrien zerrenda, haien eguna eta ordua.

Horren inguruan eztabaidarik sortuz gero, Zuzendaritza Batzordeak ebatziko du, eta ebazpena ezingo da aurkaratu.

24. artikulua

Elkartearen bidaia, txango eta bisita kultural guztietan, gutxienez Zuzendaritza Batzordeko kide bat egongo da, laguntzeko eta egin beharreko kudeaketak egiteko, ondo funtziona dezaten. Bidaietan mikrofonoa soilik bertako arduradunek erabiliko dute. (Erdialdeko gidaria, gidaria eta arduraduna)

25. artikulua: Ezeztatzeko araubidea

a) –Txangoak


Egun bateko txangoetan, arrazoi justifikatu bat tarteko dela-eta bertan ezeztatuz gero, eta 15 egun lehenago, gutxienez, zenbatekoa itzuli egingo da.

b) –Bidaia

- Bidaia guztiek dute ezeztatzeko aseguru. Ezeztatzeko aseguru Erdialderen webgunean egongo da (www.erdialdeelkartea.com), eta han egongo dira zehaztuta aseguruak estaltzen dituen ezeztatzeko kausak, behar bezala justifikatu beharko direnak.

- Bidaia bat justifikatutako arrazoiengatik ezeztatuz gero, gertatu baino 30 egun lehenago, gutxienez, aseguruarekin espediente bat irekiko da, bidaiaren zenbatekoa itzultzea bidezkoa den ebatz dezan.

- Asegurudunaren erantzukizuna da ezeztatzeko aseguruak kasu bakoitzean espedientea ebazteko eskatzen dion dokumentazioa aurkeztea.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

- Baldin eta bidaia hasitakoan ezinbesteko kasuren bat dela-eta bertan behera uzten badu antolakuntzak edo partikularren batek, ez da zenbatekorik itzuliko, zenbatekoren bat bueltatzea lortu ezean.

Nolanahi ere, itzulketa egiteko, bidaia-txartela eta ordainagiria aurkeztu beharko dira. Itzulketa ordainketa egin zen banku-txartelaren bitartez egingo da.

Elkarteak eskubidea du bidaien, txangoen eta bisita kulturalen programazioa aldatzeko edo ezeztatzeko, horiek egitea eragozten duten behar teknikoek, antolakuntzako edo ezinbesteko kasuen ondoriozko beste batzuen arabera.

Ordaindutakoa itzultzean, bidezkoa bada, ez dira itzuliko kudeaketa-gastuak, ezta aseguruarenak ere.

ZEHATZEKO ARAUBIDEA

ARAUDI HONEK UKITUTAKOAK

26. artikulua

Xedapen hauek entitatearen bazkide guztiei aplikatuko zaizkie, eta haren aurrean erantzule izango dira estatutuetan eta barne-araudi honetan jasotako zehaztapenen aurkako edozein ekintza edo omisiorengatik.

GAIA DELA-ETA ESKU HARTZEN DUTEN ORGANOEN ESKUMENAK

27. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak honako eskumen hauek ditu:

- Bazkideek, kideek, elkarteak kontratatutako edo lokalen beste edozein erabiltzailek idatziz egindako salaketak jasotzea.
- Aurreko diligentziak egitea jakiteko elkartearen araudia urratu den, eta horren arabera jokatzeko, hau da, diligentziak artxibatzea edo zehapen-espediente bat irekitzea.
- Zehapen espedienteak izapidetzea eta ebaztea.
- Hala badagokio, elkartearen instalazioei eta zerbitzuei egindako kalteak ebaluatzea eta horregatik ordaindu beharreko kalte-ordainak zehaztea.
- Zehapen-ebazpenetan agindutako betebeharrak betetzen direla bermatzea, eta arau-hausteei betetzen ez badute, exekuzio subsidiarioa egitea, eta sortutako gastuen zenbatekoa kobratzea.
- Batzar Nagusian zehapen arloko erabakien kontra aurkeztutako errekursoak izapidetzea.
- Bidaietara joatea horiek ondo joan daitezela laguntzeko eta behar diren kudeaketak egiteko.
- Bidaien programazioa aldatzea edo ezeztatzea, horiek egitea eragozten duten behar teknikoek, antolakuntzako edo ezinbesteko kasuen ondoriozko beste batzuen arabera.

28. artikulua

Elkarteko Batzar Nagusiak honako eskumen hauek ditu:

- Zuzendaritza Batzordeak emandako ebazpen zehatzaileen kontra bazkideek aurkeztutako errekursoak ebaztea.
- Zuzendaritza Batzordea kargugabetzea ebaztea, betebeharrak ez betetzeagatik.

ARAU-HAUSTEAK

29. artikulua


Zehagarriak izango dira soilik estatutuetan eta dokumentu honetan arau-haustetzat jotako ekintzak edo omisioak, elkartearen instalazioan egin badira edo handik kanpo, jarduerak iraun bitartean.

30. artikulua

Arau-haustea, larritasunaren arabera, larritasun txikiagokoak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

31. artikulua: Larritasun txikiagoko arau-haustea

- Elkartearekiko betebeharrak ekonomikoak justifikaziorik gabe ez betetzea, besteak beste, ekintzen edo omisioen ondorioz egindako kalteak birjartzeko edo konpontzekoak, 100 eurora artekoak.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

- Edozein erabiltzaileri errespetua galtzea elkarteko instalazioetan edo handik kanpoko jardueraren batek iraun bitartean.
- Bazkideentzat estatutuetan ezarritako betebeharrak edo Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Nagusiaren berariazko ebazpenak ez betetzea, baldin eta ezin badira larritzat edo oso larritzat jo.

32. artikulua: Arau-hauste larriak

- Elkartearetik betebeharrak ekonomikoak justifikaziorik gabe ez betetzea, besteak beste, ekintzen edo omisioen ondorioz egindako kalteak birjartzeko edo konpontzekoak, 100,01 euro eta 300 euro artekoak.
- Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Nagusiaren berariazko ebazpen bat ez betetzea, larritasun txikiagokotzat jotako ekintza bat edo omisio bat egiten jarraitzea badakar.
- Edozein erabiltzaileri errespetua larriki galtzea elkarteko instalazioetan edo handik kanpoko jardueraren batek iraun bitartean.
- Zehapen irmo bat ez betetzea, larritasun txikiagoko arau-hauste baten ondoriozko zehapen-espeditentean emandakoa.
- Zuzendaritza Batzordeko kideak edo elkarteko langileak mespretxatzea edo gutxietzea, harentzat lanean ari direnean.
- Elkarteko instalazioetan edo handik kanpoko jardueraren batek iraun bitartean administrazio zigorra jasotzeko moduko ekintza bat egitea.
- Elkarteko instalazioetan edo handik kanpoko jardueraren batek iraun bitartean larritasun txikiagoko bi arau-hauste edo gehiago egitea.
-


32. artikulua: Arau-hauste oso larriak

- Elkartearetik betebeharrak ekonomikoak justifikaziorik gabe ez betetzea, besteak beste, ekintzen edo omisioen ondorioz egindako kalteak birjartzeko edo konpontzekoak, 300 eurotik gorakoak. Zenbatekoan oinarritutako printzipio horren salbuespen moduan, bazkideentzat adostutako kuota urte eta erdiz ez ordaintzea, justifikaziorik gabe, ez ordaindutako zenbateko zehatza edozein dela ere, arau-hauste oso larritzat joko da, larritasun handienekotzat.
- Zuzendaritza Batzordearen edo Batzar Nagusiaren berariazko ebazpen bat ez betetzea, larritzat jotako ekintza bat edo omisio bat egiten jarraitzea badakar.
- Zehapen irmo bat ez betetzea, arau-hauste larri baten ondoriozko zehapen-espeditentean emandakoa.
- Beste norbaiten aurkako eraso fisikoa, hala bazkide baten nola bazkide ez den norbaiten kontrakoa, elkartearen instalazioetan edo, handik kanpo, elkartearen jarduerak iraun bitartean egina.
- Elkarteko instalazioetan edo handik kanpoko jardueraren batek iraun bitartean justizia-auzitegiek delitu gisa zigortzeko moduko ekintza bat egitea.
- Elkarteko instalazioetan edo handik kanpoko jardueraren batek iraun bitartean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

INGURUABAR ARINGARRIAK ETA LARRIGARRIAK

34. artikulua

Zehapenak ezartzean, proportzionaltasun printzipioa aplikatu beharko da, eta ezarri beharreko zehapena egokia eta beharrezkoa den aztertu beharko da, baita arau-haustea den egitatearen larritasunaren neurrikoa den ere, aintzat hartuta erruduntasun-maila, nahitasuna dagoen edo araua hausteko jokabidea errepikatua den, egindako kalteen nolakotasuna, arau-haustearen damua eta egindako kaltea konpontzeko ahalegina. Bi inguruabar larrigarri edo aringarri badaude, edo bat oso handia, aurreikusitakoa baino zehapen handiagoa edo txikiagoa jarri ahalko da, baldin eta behar bezala arrazoitzen bada.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

35. artikulua: Inguruabar larrigarriak

- Berrerortzea, hau da, urtebetea bi arau-hauste berdinekin edo gehiago egotea, edo errepikatzea, hots, urtean lau egitea, arau-hauste ezberdinak badira, Zuzendaritza Batzordeak ebazpen irmoz hala adierazi badu.
- Zuzendaritza Batzordeko kideen edo elkarteko langileen kontra hala direlako edo elkartearentzako lan egiten ari direnean egindako arau-haustea.
- Hirugarrenen edo elkartearen ondasunen kaltetan jardutea, nahita.

36. artikulua: Inguruabar aringarriak

- Bete ez diren betebeharrak berehala eta borondatez betetzeko asmoa.
- Arau-haustea den ekintza edo omisioa egitean nahitasunik edo dolorik ez egotea.
- Mindutakoak asetzea eta/edo haien barkamena jasotzea.
- Elkarteari edo hirugarrenei egindako kalteak konpontzea, bereziki arau-hausteen aurrekaririk gabeko norbaitek egin baditu.

ZEHAPENAK

37. artikulua

Larritasun txikiagoko arau-haustea ahozko edo idatzizko ohartarazpen baten bidez zehatu ahalko dira, eta bazkidetza etetea eta elkartearen jardueretan parte hartzeko edo haren instalazioetan sartzeko debekua ekarri ahalko dute, egun baten eta hilabeteren arteko aldi.

38. artikulua

Arau-hauste larriak zehatzeko, bazkidetza eteten ahalko da eta elkartearen jardueretan parte hartzeko edo haren instalazioetan sartzeko debekua ezarri ahalko da, hilabeteren eta sei hilabeteko arteko aldi.

39. artikulua

Arau-hauste oso larriak zigortzeko, bazkideari bazkide izaera eten ahalko zaio, eta elkartearen jardueretan parte hartzea edo haren instalazioetan sartzeko debekatu ahalko zaio, sei hilabete eta egun bat eta urtebete arteko tartarako, edo, larritasunaren arabera, bazkide izateari utzarazi eta elkartearen jardueretan parte hartzea edo haren instalazioetan sartzeko debekatu ahalko zaio.

PROZEDURA

40. artikulua: Kautelazko neurriak

Kautelazko neurriak:

Ikertutako egitateen larrialdiaren arabera, eta bereziki indarkeria fisikoko edo ahozko indarkeriako egintzak badaude tartean, Zuzendaritza Batzordeak erabaki ahalko du aldi baterako etetea bazkide ikertuak elkartearen instalazioetara sartzeko eta haren zerbitzuak erabiltzeko duen eskubidea, harik eta prozedura amaitzen den arte.

41. artikulua: Prozeduraren beharra

- Bazkide bati edozein zehapen ezartzeko, haren aurkako zehapen-prozedura bat hasi beharko da, kapitulu honetan araututako prozedurari jarraituz.
- Ustezko egileak prozeduraren edozein unetan gertakariak eta haren ondorioak onartzen baditu, automatikoki igaroko da zehapen-espeditentia ebazteko fasera.
- Prozeduraren faseetan parte hartzen duten elkarteko organoak letraduek eta/edo espezialistek lagundu ahalko diete, kasuaren konplexutasunaren arabera.

42. artikulua


Espeditentia Zuzendaritza Batzordeko lehendakariaren erabakiz irekiko da, ofizioz edo salaketa idatzi baten ondorioz.

Espeditentearen instruktorea Batzordeko idazkaria izango da.

43. artikulua

Zehapen-espeditentia hasi aurretik, lehendakariak idazkariari eskatuko dio aurreko ikerketa bat egin dezan, arau-haustea egon dela baieztatzeko; gertatutako kalteen behin-behineko ebaluazioa egin dezan, hala badagokio, jazotako arau-haustea aldi baterako sailkatu ahal izateko, arau-haustearen egilea nor den edo nortzuk diren argitzeko edo ezinbestean jakin beharreko egitateak edo datuak zehazteko, zehapen-espeditentia haste aldera.

44. artikulua



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

Behin zehapen-espedientea irekitzeko erabakia hartutakoan, haren berri emango zaio interesdunari, kargu-orriarekin batera, karguak kentzeko dagokion orria aurkeztu ahal izan dezan jakinarazpena egin zenetik hasi eta hamabost egun balioduneko epean, bere eskubideak egoki iritzitako moduan defendatzeko alegazioak eta zehaztapenak egiteko eta, hala badagokio, egotzi zaizkion egitateak eta erantzukizunak argitzeko behar beste frogarekin.

Jakinarazpena bazkidearen bizitokian egingo da, elkarteak dituen datuetan jasotakoan. Posible izan ezean, gaztigu bat jarriko da elkarteko instalazioetan kokatutako informazio-paneletan.

Aurreikusitako hamabost egunetan jakinarazpena egin ezin bada, prozedurak aurrera egingo du.

45. artikulua

Kargu-orrian argi eta garbi adieraziko dira ikertutako egitateak, hautsi ahal izan diren manuak, kalteen balorazioa, halakorik badago, gertatutako inguruabarrak, halakorik badago, eta egokitu dakikeen zehapena.

46. artikulua

Idazkariak, instruktore lanetan, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta behar beste froga egiteko agindu ahalko du, egitateak argitzeko eta zehatu daitezkeen erantzukizunak zehazteko.

Interesdunei gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko zaie onartu diren frogetarako behar diren jarduketak hasiko direla. Jakinarazpen horretan non, zer egunetan eta zer ordutan egingo den adierazi beharko da, eta jakinarazi beharko zaie teknikariek edo aholkulariek lagunduta parte hartu ahalko dutela.

47. artikulua

Aurkeztutako kargu orria eta karguak kentzeko orria ikusita, edo epea azken hori aurkeztu gabe amaitu ondoren, eta aurkeztutako froga ikusita, ebazpen proposamen arrazoitua emango da, eta, bertan, honako hauek jaso beharko dira, gutxienez:

Gertakariak; egileak; urratutako arauak; hala badagokio, elkartearen zein hirugarrenen ondasunei egindako kalteak; proposatu diren arau-haustea eta zehapena; gertatutako inguruabarrak; oro har, proposatutako zehapena ondo ulertzeko eta aplikatzeko behar diren judizio elementu guztiak.

48. artikulua

Proposamena egin ondoren, ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio, hamar egun balioduneko epean aurkez ditzan karguak kentzeko eta bere burua defendatzeko egoki deritzen alegazioak.

Ustezko arau-hauslearen alegazioak jasotakoan edo horiek aurkeztu gabe aurreikusitako hamar eguneko epea igarotakoan, instrukzio organoak Zuzendaritza Batzordera joko du, eta hark ebazpena emango du, arau-hauslea bertan ez dagoela. Honako hauek jaso beharko ditu ebazpenak:


- Dagokion zehapena ezartzea; edo, bestela
- Arau-hausterik ez dagoela eta espedientea artxibatu dela adieraztea.

Baldin eta espedientearen interesduna Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bada, eztabaidak egingo diren eta ebazpena emango den lekutik kanpo egongo da.

Ebazpen horrek arrazoitua izan beharko du beti, gehienez ere hiru eguneko epean jakinaraziko zaio interesdunari, eta eraginak jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu. Jakinaraztea posible izan ezean, gaztigu bat jarriko da elkarteko instalazioetan kokatutako informazio-paneletan. Gaztigu horretatik hiru egun igaro eta ukitutakoaren berri jaso ez bada, hurrengo egunetik aurrera izango ditu eragin guztiak.

49. artikulua

Ebazpenak zehapen bat ezartzea badakar, jakinarazpenean ohartaraziko da errekurtsua aurkez daitekeela egiten den hurrengo Batzar Nagusi ohiko zein ezohikoan. Dena den, zehapena berehala aplikatuko da. Zehatutakoa Zuzendaritza Batzordeko kidea bada, ebazpenean kargugabetzea ere jaso beharko da.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

50. Artikulua

Errekurtsioa aurkeztu eta ez bada aurreikusitako hiru hilera epean Batzar Nagusiaren bilkurarik egitea, berariaz deitu beharko da batera, hura ebazteko.

Idazkariak zehapen espedientearen laburpen bat idatziko du, gertakariak eta akusatutakoak idatzitako idazkiaren edukia zehatz-mehatz ezagutzeko, Batzarrak dagokion erabakia hartu ahal izan dezan.

Errekurtsioa bilkurako puntu horren hasieran bertaratu ahal da, Batzarrari bere argudioak aurkezteko eta, hala badagokio, bertaratuek egindako galderei erantzuteko. Esan beharrekoa esandakoan, bilkuratik kanpo joango da, Batzarrak eztabaida hasi aurretik.

51. artikulua

Baldin eta Batzarrak erabakitzen badu, betiere arrazoituta, Zuzendaritza Batzordearen erabakia berrestea, berehala jakinaraziko zaio errekursioari, eta jakinarazpen horretan adierazi beharko da eskubidea duela auzitegi arruntetan errekursioa jartzeko, uste badu erabaki hori Legearen edo elkartearen estatutuen kontrako dela.

52. artikulua

Bazkide bati bere borondatez edo zigor baten ondorioz elkartetik kanpo geratzeko dela jakinaraztean, elkartearekin bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

53. artikulua

Araudi honetan aurreikusitako arau-hausteak zehatzeko aukera gertakariak jazo eta urtebetera amaituko da, arau-hauste oso larrietan; sei hilabeteren buruan, larrietan; eta hiru hilabete igarotakoan, larritasun txikiagokoetan.

Arau-hauste oso larrietan ezarritako zehapenak ezingo dira aplikatu espedientearen ebatzi zenetik urtebete igarotakoan; larriengatik ezarritakoak, sei hilabete pasatutakoan; eta larritasun txikiagokoengatik, hiru hilabeteren buruan.

54. artikulua

Baldin eta arau-hausteak edo gertatutako egitatearen bat delituak izan badaitezke, jarduketan instrukzio organoak edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordeak, informazio guztia eta dokumentazio eskuragarria Fiskaltzari igorriko dio, eta ez du zehapen prozedura jarraituko harik eta autoritate judizialak erabaki bat hartu arte.

Prozedura judiziala amaitutakoan, espedientearen jarraituko da, auzitegien arabera frogatuta dauden egitateetan oinarrituta.

Epaitegiak delitua dagoela iritzi ezean, elkarteak zehapen espedientearen jarraitu ahal du auzitegien arabera frogatuta dauden egitateetan oinarrituta, nahiz eta delituak ez izan, araudi honetan aurreikusitako ondorioak badakartzate.

Delituri baden egiaztatze dokumentazio eskuragarri guztia autoritate penalari bidaltzeak eten egingo ditu aurreko artikuluan ezarritako preskripzio epeak.

HAUTESKUNDE PROZEDURA

55. artikulua

Karguetarako hauteskundeak egiten badira, boto eskubidea duen edozein bazkidek parte hartu ahal du, ezarritako kuotak egunean baditu.

56. artikulua

Hauteskunde prozesua Zuzendaritza Batzordeak erabakitzean hasiko da, eta adierazi beharko du elkartearen karguetarako hauteskundeetarako Batzar Nagusia zer datatan egingo den.


Batzordearen erabakiaren eta Batzarraren arteko tartea gutxienez bi hilabetekoa izan beharko du. Deialdia bazkide guztiei bidaliko zaie, eta elkartearen egoitzan informazio afizak jarriko dira.

Hautagaitzak aurkezteko epea, gutxienez, hilabetekoa izango da, deialdia bidaltzen denetik eta afizak jartzen direnetik hasita, eta deialdian bertan jasota egon beharko du.

57. artikulua

Hautagaitzak zerrenda itxietan aurkeztuko dira, eta bete beharreko kargu guztiak beteko dituzte.

58. Artikulua



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

Batzar Nagusia egiten den egunean, saioaren hasieran Hauteskunde Mahaia osatuko da, Batzarrera bertaratu diren bazkide adintsuenak eta bi gazteenak osatuta. Horietako bat Mahaiko idazkaria izango da. Hauteskunde Mahaia osatzen dutenak ezingo dira ezein kargutara aurkeztu, eta hautagaiak badira, beste batek ordeztu beharko ditu. Hauteskunde Mahaia zenbaketa egingo du eta prozesuaren akta hartuko du. Akta Batzarraren aktari atxikiko zaio.

59. artikulua

Hautagaitza bakarra badago, Hauteskunde Mahaia hura hautatuko du, bozketarik egin beharrik gabe.

60. artikulua

Elkarren lehian dauden hautagaitzek hauteskunde programa aurkeztu ahalko dute, eta programa bakoitza azaltzeko behar den denbora emango dela bermatuko da.

61. artikulua

Bozketak sekretuak izango dira, eta Hauteskunde Mahaia emandako boto paperetan egingo dira.

62. artikulua

Hauteskondeetara bi zerrenda bakarrik aurkeztu badira, emandako botoen gehiengoa lortzen duena hautatuko da.

Bi hautagaitza baino gehiago aurkeztu badira, lehen bozketan emandako botoen gehiengo osoa lortzen duena hautatuko da.

Hautagaitza batek ere gehiengo osoa lortzen ez badu, boto gehien lortu duten bi hautagaitzak aurkeztuko dira bigarren bozketan, eta emandako botoen gehiengoa lortzen duena hautatuko da.

ELKARTEKO KARGUAK KARGUGABETZEKO PROZEDURA

63. artikulua

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzorde osoa, edo haren kide bat edo batzuk kargugabetu eta, hala badagokio, ordeztu ahalko ditu, horretarako deitutako bilkurara bertaraturako bazkideen gehiengo osoak zentsura mozioa onetsiz gero, hau da, saiora bertaraturako bazkideen % 50 gehi batek.

64. artikulua

Zentsura mozioa elkartearen idazkariari aurkeztu beharko dio gutxienez hamar bazkidek osatutako talde bultzatzaileak, eta, gutxienez, elkarte bazkideen % 10en babesa izan beharko du.

Mozioarekin batera aurkeztutako sinadurek identifikatzeko modukoak izan beharko dute, eta, sinatzaile bakoitzaren izenaz gain, haren bi abizenak eta nortasun agiri nazionalaren zenbakia jaso beharko da.

Zentsura mozioan, nahitaez, Zuzendaritza Batzorde berriaren proposamena jaso beharko da, batzorde osoaren kontrakoa bada.

Haren kide baten edo batzuek kontrakoa bada, ez da beharrezkoa izango, non eta ukitutako kideak ez diren Batzordekoen erdiak; orduan nahitaezkoa izango baita kide berriak proposatzea.


65. artikulua

Idazkariak zentsura mozioa jasotakoan, eta betekizunak bete direla egiaztatutakoan, Zuzendaritza Batzordeak berehala deitu beharko du ezohiko Batzar Nagusira, gehienez ere mozioa aurkeztu eta zazpi laneguneko epean egin dadin.

66. artikulua

Aitzitik, Zuzendaritza Batzordeak mozioak akatsak ikusiz gero, haren bultzatzaileei jakinaraziko dizkie akats horiek, idatziz, 10 eguneko epea emango die horiek zuzentzeko, eta ohartaraziko die mozioa artxibatutako egingo dela epe horretan zuzendu ezean.

Akatsak zuzendu ondoren, Batzordeak ezohiko Batzar Nagusi batera deituko du, gehienez ere zuzenketatik zazpi lanegunetarako.



ERDIALDE Erretirodunen eta Pentsiodunen Elkartearen barne araudia

67. Artikulua

Batzarraren hasieran, Hauteskunde Mahaia eratu da, eta Zuzendaritza Batzordeko kideek eta mozioaren talde bultzatzailekoek osatuko dute, erdi bana.

Mahaia eratuakoa, talde bultzatzaileko ordezkariak hartuko dute hitza, zentsura mozioaren testua irakurtzeko eta haren arrazoiak aurkezteko.

Horren ondoren, Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak hartuko dute hitza, haiek jarraitzeko behararen alde egiteko.

Hitzaldiak amaitutakoan, bazkideak bi alderdiei zuzendu ahalko zaizkie, haien hitzaldien inguruan egoki irizitako azalpenak eskatzeko.

68. artikulua

Galderen txanda amaitutakoan, bozketa egingo da, zuzeneko eta sekretua. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak Hauteskunde Mahaiari bozketa erdua eman beharko dio, bi aukera izango dituen: zentsura mozioari bai edo ez.

Mozioak Zuzendaritza Batzordearen hainbat kideri eragiten badie, ereduak guztien izena jaso beharko du, eta bi aukerak bakoitzerako.

69. artikulua

Bozketa amaitutakoan, Hauteskunde Mahaiak zenbaketa egingo du, jendaurrean.

70. artikulua

Mozio ez badu babesten Batzarrera bertaratuak bazkideen gehiengo osoak, hau da, erdiek gehi batek, bertan behera geldituko da, eta Zuzendaritza Batzordeak normaltasunez jarraituko du bere lanetan.

71. artikulua

Mozioak behar den gehiengo osoa lortzen badu, mozioaren xede diren Batzordeko kideak une horretan bertan kargugabetuko dira, eta mozioan proposatutakoak izendatuko dira, haien ordeiz.

Hautatutako kargu berrien agintaldiak aurreko agintaldia amaitu arte bakarrik iraungo du, eta, hura amaitutakoan, hauteskundeak egin beharko dira.

Mozio proposamenak ordezeko hautagaitzarik ez badu, hutsuneak Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideen erabakiz beteko dira, kooptazio sistemaren bitartez, agintaldia amaitu arte.

BARNE ARAUBIDEA ALDATZEKO PROZEDURA

72. artikulua

Araudi hau Zuzendaritza Batzordearen edo bazkideen % 10en ekimenez aldatu ahalko da.

73. artikulua

Aldaketa horretarako deitutako ezohiko Batzar Nagusiak onetsi beharko du, gehiengo sinplez.

74. artikulua

Deialdiaren aurretik, Zuzendaritza Batzordeak bazkideen esku jarriko du aldaketa proposamena, eta testuari zuzenketak egiteko aldia ezarriko du, gutxienez hilabetekoa. Aldaketa proposamenean jaso beharko da zuzenketak aurkezteko epemuga.

75. artikulua

Zuzenketak aurkezteko epea amaitutakoan, Zuzendaritza Batzordeak ezohiko Batzar Nagusira dei egingo du, eta aurkeztutako zuzenketak deialdian txertatuko ditu.

76. artikulua

Araudi hau aldatutakoan, Zuzendaritza Batzordeak bazkideei emango dizkie aldatutako testuak.